

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1199

136/2025 EBAZPENA, martxoaren 5koa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Larrialdietako Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 17ko 4/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Larrialdietako Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko ESIan (2025eko otsailaren 3ko EHAA, 22. zk.).

Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da eskabiderik aurkeztu.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Larrialdietako Gainbegirale lanpostua betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2025eko martxoaren 5a.

Debabarreneko ESIko zuzendari-gerentea,
ASIER ESNAL ALBIZU.